



MUSIKA

Hegan egiten



JOXI UBEDA

Inoren Ero Ni taldeak bere bidea egiten jarraitzen du, bide bihurria, urratsez urrats aurrera egiten, bilatzen, probatzen, esperimentatzen, beste soinu lurralde batzuk ezagutzen, hegan egiten. *Il cercatore di perle* (Harribixien bilatzailea) izenburua oso aproposa da, ederki azaltzen du edukia, mamia. Haien lanik onena dela esan daiteke, biribilena, pertsonalena.

Lau kantaz osaturiko binilozko EP edo iraupen laburreko disko bat da, eta kantak CD batean ere entzun daitezke. Okene (ahotsa, tronpeta), Borja (gitarra), Guanche (bateria) eta Mariano (baxua) Garate estudioetan aritu dira Martxel Arkarazorekin (grabazioa, masterizazioa), eta beren ohiko musika tresnez gain, teklatuak, perkusioak, eta

beste hainbat gailu eta traste ere erabili dituzte. Okenek, abesteaz gain, hitz egin edo errexitatu egiten du, tarteka xuxurlak edo oihuak egiten ditu, batzuetan bere ahotsa oso urrundik iristen dela ematen du, eta tronpetarekin hotsak egiten ditu.

Azken batean, taldekideek jolas egiten dute soinuekin, erritmoekin eta hitzekin –Charles Bukowskiren poema batean oinarritu dira kanta bat egiteko–. Hamaika xehetasun eta ñabardura entzun daitezke kantetan, erritmo aldaketak, mozketak, tentsioa, eta melodia politak ere bai; pasarte batzuk bi-ziak dira, indartsuak, eta beste batzuk leunak; eta une kitzikagarriak bizi daitezke, iradokitzaileak, bereziak. Kanta bakoitza mundu desberdin bat da, ha-



IL CERCATORE DI PERLE INOREN ERO NI

BIDEHUTS, 2019

rribitxi bat, izenburuak berak adierazten duen bezala.

Ibilbide ederra egiten ari da Inoren Ero Ni diskoz disko eta emanaldiz emanaldi. Hamazazpi urtean sei disko egin dituzte, bakoitza bere airearekin, ukituekin eta ezaugarriekin. Lehen diskoa hardcorearen kutsukoa dela esan badaiteke, orduko erritmo azkarrak mantsotu egin dira, gero eta ñabardura gehiago entzun daitezke haien kantetan, gero eta aldaketa gehiago giroen aldetik, eta ondorioz Inoren Ero Ni egiten duena ezin da parekatu musika estilo jakin batekin, ezin da ohiko musika tiradera batean sartu.

Hurrengo disko bat egiten badute, Inoren Ero Ni estilokoa izango da, baina ziur desberdina izango dela aurrekoekin alderatuz. ●